

10.- PLANGINTZAREKIKO ERAGINA (LAA, 22.9. kap.)

10.1.- PLANGINTZAREKIKO ERAGINA

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAParen Plangintzarekiko eraginari buruzko kapitulu hau dokumentazio osagarri gisa idatzia da, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartutako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako aplikazio-arauei buruzko 22. kapituluaren 9. puntuan adierazitakoaren ondorioetarako.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAPa EAEn egun indarrean dagoen lurralde-plangintzaren testuinguruan barne hartzen da, berariazko aldaketa zehatzik eskatu gabe. Aipatutako plangintza ondoko hauek osatzen dute: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, Errepideen Plan Orokorrak, Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, Haize-energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, Trenbide Sarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, behin betiko onartutako hiri-plangintzako arau orokorrek eta arau subsidiarioek eta horiei dagozkien aldaketek.

Gainera, LAPa bideratzeko prozesuan egiaztatu da dokumentuaren zehaztapenek ez dutela kontraesanik egun lantzen edo bideratzen ari diren lurraldearen antolamendurako gainerako tresnekin. Zehazki, LAPak ez du kontraesanik udalaz gáindiko lurraldearen antolamendurako honako dokumentuekin:

Lurraldearen Zatiko Planak

- Araba Erdialdeko EEko LAPa
- Arabako Errioxako EEko LAPa
- Aiarako EEko LAPa
- Arratiako EE
- Bilbo Metropolitarrako EEko LAPa
- Durangaldeko EEko LAPa
- Enkartzioetako EEko LAPa
- Busturialdea-Artibaiko EEko LAPa
- Mungiako EEko LAPa
- Debagoieneko EEko LAPa
- Debabarreneko EEko LAPa
- Donostia-Beterriko EEko LAPa

- Goierriko Eeko LAPa
- Urola-Kostako Eeko LAPa

Lurraldearen Arloko Planak

- Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko LAPa
- Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LAPa
- Nekazaritza eta Basoetako LAPa
- Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko LAPa
- Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko LAPa
- Garraioaren Sare Logistikoa eta Modalitate artekoa Antolatzeko LAPa

10.2.- LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEI DAGOKIENEZ

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aurreikuspenetan LAPa behar bezala barne hartzeari dagokionez, aurreikuspen horietan beraietan espresuki jasotzen da Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana idatzi behar dela. Dokumentu horretan, besteak beste, ondorengo zehaztapenak ezarri beharko dira (LAA, 9. kapitulua, 5. atala):

- Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketarako zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatzea.*
- Adierazitako jarduketak lurraldearen gune jakin bakoitzean hartuko duen lurzoru-gainazalaren kuantifikazioa eta jarduketa bakoitzak bete beharko dituen ezaugarrien zehaztapena.*
- Beharrezko inbertsioen programazioa eta proposatutako esku-hartze publikoen ikuspegia eta bideragarritasuna aditzera emango dituen azterlan ekonomikoa.*

LAAetan ez da berariaz aurreikusten Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idatzi behar denik. Nolanahi ere, 18. kapituluko 2.5 atalean oro har aurreikusten dira horiek lantzeko irizpide batzuk.

Hala eta guztiz, EAEko jaurlaritza sortzeko akordio programatikoa (1999-2002 legegintzaldia) honako hau adierazten da espresuki:

Merkataritza ere jarduera-arlo garrantzitsua da gure autonomia-erkidegoan. Gaur egun, merkataritza-banaketa-erako arloko erronka garrantzitsua da saltoki handiak gero eta gehiago espezializaziora jo behar duen merkataritza txiki eta ertainarekin partekatzea.

Horrenbestez, akordio programatiko horretan, besteak beste, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana landu eta onartzea erabaki zen.

Ondoren, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumeneko eta Industria, Merkataritza eta Turismoaren sailen arteko erabakiz, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko LAParen eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAParen lanketa dokumentu berean bideratzea bidezko hartu zen, lurzoruaren okupazioan eta lurraldearen hirigintza-antolamenduan elkarrekin lotuta dauden arazo garrantzitsuak biltzen baitira.

10.3.- LURRALDEAREN ZATIKO PLANEI DAGOKIENEZ

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAParen edukiak lantzen edo bideratzen ari diren Lurraldearen Zatiko Planen dokumentuekin behar bezala bat etortzeari dagokionez, egiaztatu da LAPean udalerrien kategoriak ezartzen direla, jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatu eta garatzeko. Gainera, zenbait proposamen planteatzen dira lurzoru publikoa sortzeko eragiketen kokapenerako. Arazo horiek behin-behineko aurkeztu dira eta, azken buruan, eskualde-egitura bakoitzerako Lurraldearen Zatiko Planean jasotzen dira, 4/1990 Legean xedatutakoari jarraituz.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioari dagokionez, LAPean, eskualde-egitura edo eskualde-azpiero bakoitzerako aurreikusi beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren guztizko eskaintzaren dimentsionamendu orokorra besterik ez da ezartzen. Nolanahi ere, ondorengo lurraldearen zatiko planen eginkizuna izango da eta, modu osagarrian, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearena, dimentsionatzeko jarraibide horiek banan-banan lekualdatzea eskualde-egitura bakoitzaren udalerrietarako plangintza orokorretara, eskualde-egitura bakoitzean, dagokion lurralde-esparruaren osotasunean, 16 urteko aldirako aurreikusitako espazio-erreserben banaketa haztatua eginez, bai denboran bai espazioan.

10.4.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANEI DAGOKIENEZ

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAParen edukiak onartuta dauden edo lantzen nahiz bideratzen ari diren gainerako Lurraldearen Zatiko Planen edukiarekin behar bezala bat etortzeari dagokionez, inolako disfuntziorik ez dagoela egiaztatu da.

Zehazki, dagoeneko behin betiko onartutako LAPekin (Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LAPa, Garraioaren Sare Logistikoa eta Modalitate artekoa Antolatzeko LAPa eta Haize-energia Antolatzeko LAPa) ez dago inolako bat ez-etortzerik.

Era berean, LAPean, ingurune fisiko babesteko kautelazko neurri nagusiak jaso dira, industria eta hirugarren sektorea garatzeko proposamenek bete beharreko erabilera-baldintzak adieraziz, iraunkortasun-irizpideak kontuan izanda eta lurraldearen harrera-ahalmenaren arabera. Ildo horretatik, bereziki kontuan hartu dira lantzen ari diren Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko LAPean, Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LAPean eta Nekazaritza eta Basoetako LAPean jasotako zehaztapenak.

Bideratzen ari den Garraioaren Sare Logistikoa eta Modalitate artekoa Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planari dagokionez, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAPean xedapen gehigarri bat gaineratu da, bi dokumentuen arteko koordinazioa eta osagarritasuna ziurtatzeko asmoz.

Azkenik, egiaztatu da LAPean ez dagoela bat ez-etortzerik ere bideratzen ari diren beste Lurraldearen Arloko Planekin, hala nola, Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko LAParekin eta Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko LAParekin, besteak beste.

10.5.- UDAL-PLANGINTZA OROKORRARI DAGOKIONEZ

Udal-plangintza orokorrari dagokionez, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAPak indarrean dagoen plangintza ontzat hartzen du, horretan aldaketarik proposatu gabe. Udal-plangintza orokorraren antolamendu-arauei buruzko artikuluetan (8. kapitulua), zenbait arau lotesle eta erreferentziazko jarraibide ezartzen dira hura berrikusteko etorkizuneko prozesuetarako, jarduera ekonomikoak kokatu eta arautzeko udal-kategoriak eta lurzoru publikoa sortzeko eragiketei buruzko proposamen batzuk barne direla (bi arazo horiek iragankorrak dira, bidezko LAPak onartu artean). Gainera, saltoki handien lurralde-arautzerako udalen beste kategoria batzuk finkatu dira.

Era berean, LAParen Memorian, aditzera emateko besterik gabe, hirigintza-erabileraren etorkizuneko aldaketa-prozesuak arautzeari buruzko irizpide orokor batzuk jasotzen dira.